



INAUTERIAK TABERNARIEN IKUSPEGITIK

Batzuk jai egin ahal izateko, beste batzuk lan egin behar dute; Tolosako tabernari batzuk euren lanaz hitz egin dute >6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Igandea
2009-02-22

VIIURTEA 1.636.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

TXIKIEN EGUN HANDIA

TOLOSA Ehunka gazte atera ziren atzo Haur Danborradan; jendetza hurbildu zen gaztetxoak ikustera

HELDUAK Lehen aldiz, helduen danborrada 19:00etara aurreratu zuten; dirudienez, aldaketarekin asmatu dute 4-5



Lehenbizi Haur Danborrada atera zen Santa Maria kaletik; ondoren, 19:00etan, helduen txanda izan zen; egurdiala lagun izan zen eta jende ugari atera zen kalera. R. CALVO / E. EZEIZA

TOLARE-SAGARDOTEGIA
Jatorrizko Sagardoa



SARASOLA

ondo pasa
Inauteriak!

Sagardotegia - ASTEASU
Tel.: 943 69 02 83
Zumalikardi Baserria - ANOETA
Tel.: 943 65 26 22



TEILATUGAIN

- TEILATUKO LANAK ETA MANTENIMENTUA
- EGURREZKO EGITURAK
- TEILATU-HODIAK

649 093 397 ORDIZIA



K Komikia

Gorka Salaberria



» PASARTEAK

■ **Datak.** Tolosako Inauterietako Zaldunita eguna ez da inoiz ospatu izan otsailaren 2a baino lehen, ez eta martxoaren 7a baino beranduago.

■ **Udaberrietako jaiak.** 1943. urtean, egoera politikoa zela eta, Inauterriak Udaberriko jaiak izatera pasa ziren. 1965ean, ofizialki, Inauterri izena berreskuratuko dute Inauterriek.

■ **1940.** Ostegun Gizenean Pintxana txaranga lehen aldiz irten zen kalera.

■ **1943.** Kabi-Alai, Txinparta eta Gure Txokoa elkarteek ekimenez, Asteartita egun egiten den bezala hasi ziren ospatzen.

■ **1943.** Alborada, gaur egun eza gutzen dugun bezala, sortu zen.

■ **1952.** Plaza Zaharretik zezen-plazarainoko kalejira ofizialdu egin zuten.

» ABESTIAK

Pintxana

Pin, pin, pintxanarrak gu gera
Pin, pin, pintxanarrak beti.
Umora ona pastasen degu
Beti sagardotegian,
Gu bezelakorikan ez baita
Tolosako errian.
Neska gaztiak ez lotsik euki
Guregana etortzeko,
Pintxanarrak beti zai gaude
Zuekin dantzatzeko.

(Luis Rezola 'Tximela')

«Tolosako Inauterietan txarangak eta karrozak ezin dira falta, ez lirateke Inauterriak»

MARI JOSE OTXOTORENA » Inauterizalea

Inauterriak » Ferialekuan Inauterrien aurretik sortzen den giroa ere «polita» dela esaten du, baina «lehenago familia girokoagoa zen».

NEREA URBIZU

Mari Jose Otxotorenak 20 urte inguru daramatza Tolosako ferialekura hurbiltzen, Inauterrien garaian (Alegia, 1963). Inauterrien atarian karrozari azken ukituak ematen harrapatu dugu Tolosan bizi den alegiarra.

Betidantik bizi izan dituzu Tolosako Inauterriak?

Bai, 20 urte karrozatan daramatzat, beti prestatzen. Nire senarra tolosarra da eta bere koadrilakoekin prestatzen dugu karroza.

Hainbeste urtetan ibilita, eman al da aldaketarik?

Bai, asko, giroak oraindik Ferialekuan jarraitzen du, baina aldatu dira gauza batzuk. Nire uestez, Inauterri bezala galdu dutela, beste era batekoak dira. Lehenago fami-

liarragoak ziren, denok elkar eza gutzen genuen...

Batzuk diote umorea falta dela, hala da?

Hori da. Adibidez, karroza gaur margotu egin digute, aldameneko-ei lapurreta bat egin diete, eta hori ez da inoiz gertatu. Beste bati zerra bat kendu diote... Lasai ibiltzen ginen denek lehenago.

Zein da gustukoaren duzun eguna Inauterrietan?

Igandea eta astelehena. Igandea karrozengatik baina astelehenean karrozik gabe ateratzen gara, asko gustatzen zait egun hau. Larunbatean lehenago gauez parranda egiten genuen. Orain, goiz joaten gara etxera igandean indartsu ateratzeko. Hori bai, den-dena egiten dugu, gauza pila batean hartzen dugu parte.

Zein da Inauterrietan egon behar duen elementua?

Txarangak eta karrozak, horiek ezin dira falta eta ez lirateke Tolosako Inauterriak izango. Eta aurren, karroza ibilbidea dela eta, ez dakit zer gertatuko den... Beheralde-



N. URBIZU

ra ez joate hori, kalterako izango delairuditzen zait. Konpartsekoso giro ona jartzen dute, kontuz, baina karroza handi horiek bueltaka ibiltzea... Ez dakit, ikusiko dugu.

Giroa ez da berdina izango bide hori eginez gero, ez baitugu adibidez guk elkar ikusiko. Lehenago gurutzatu egiten ginen, orain ez.

Karrozekin zer islatzen duzue?

Ez dugu kritikarako erabiltzen, gurasoak, nerabeak, haurrak ibiltzen gara eta ondo pasa nahi dugu, hori bilatzen dugu. Nik adibidez bi alaba daukat eta karrozan etortzen dira. Nerabe asko ditugu karrozatan.

Hogei urtetan, izango duzu gogoko mozorrenen bat.

Askok gustatu zaizkit, adibidez, txirigotaz jantzi ginenean oso ondo pasagenuen.

Zer nahiago duzu, eguneko ala gaueko parranda?

Orain, egunekoa. Gauekoa asko gustatu izan zait baina orain egunekoa.

Karroza prestatzen noiz hasten zarete?

Erregeen eguna pasa ondoren irekitzen dute, baina iraila urria aldeira zertaz aterako garen hitz egiten hasten gara. Gustu desberdinak dauzkagu...

Lan pixka bat badago hemen, ez?

Bai, ordu pila dago. Hemen ere oso ondo pasatzen dugu, kafea, pastak... Giro oso polita sortzen da.

Noiz hasten zara urduritzen?

Ez naiz urduri jartzen. Jantziak prest baldin badauzkat ez dago arazorik. Lehen hitz egiten aritu gara, elurra egin behar duela esan dute: nahi duena egin dezala! Pena eurria izaten da dena bustitzen delako: aurren estalpetxo bat jarri dugu. Denetik ikusi dugu, eta urterotera gara.



A Argazki zaharra



70. eta 80. hamarkadan

DIANA ● Urtetik urtera geroz eta goiztiar gehiago animatzen dira dianan parte hartzea. Ezkerrean, 70. hamarkadako ikus

dezakegu, eta eskuineko argazkia, berriz, 1988koa da. Bietan ere, Musika Bandak lagunduta doaz herritarrak esnatuz. HITZA

G Gutunak

Hipokresia eta gezurra nagusi!

Azken egun hauetan, hauteskunde Anti Demokratikoen kanpainan bete-betean sartuta gaudelarik, Alderdi politikoetako buruzagi guztiak ari dira beren diskurtso potolok botatzen herritarron bozkak berenganatu asmoz, berriz ere boterean jarraitzeko izugarritzko soldatak ziurtatu eta beren interesetako politika egiteko. PNV, Ibarretxe eta Urkullu buru direlarik behin eta berriz, aldaketaren beharra eta gazteizko legebiltzara euskaditik (sabin etxetik) erabakitzearen beharraz ari zaizkigu eta pairatzen ari garen krisi ekonomikoak gainditzeko bidean garelako adieraziz. Eta, ze arriskutsua eta txarra izango den Euskadirentzako PSOE-Ek, hauteskundeak irabaziz, Patxi Lopez lehendakaria izatera iristen bada, (Madrilen) hartuko dituelako erabakiak. Horrela euskal jendarteabeldurtu nahian. PSOEkere, Lopez, Zapatero, Rubalcaba eta Frantziaren oinordekoak direnak, berdin ari dira esaten, PNV eta Ibarretxeren aurka egiteko. Datoren urteetan Legebiltzarrean aldaketa sakonak, PSOE eta Lopez Lehendakari denean etorriko direla adieraziz. Eztatanda handiak sortu nahian ari dira poilitka egiteko oso era ezberdinak dituztelaren antzerkia egiten ari dira. Guzurretan ari dira. Ez dute aldaketarik nahi. Helburu bakarra dute; Gezur handiak behin eta berriz esan eta herritarrak

engainatuz, nork botere gehiago lortu ari dira borrokatzen, ez dago beste lehiarik. Beraien helburua ez da, euskal jendartearen arazoak eta beharrak kopontzea. Amaitu berri den lau urteko legegintzaldian, PNV eta PSOE eskutik aritu dira legebiltzarrean. Proiektu berberak defendatzen dituzte. Adibidea: azken lau urte hauetan EAeko eta Espainiako Estatuko aurrekontuak elkarrekin adostu eta bozkatu dituzte. Bestetik, Ibarretxeren eta hiruko gobernuak PNV, EA eta EBk, aurkeztutako 43 lege proiektuetatik 35i eman dio baiezkoa PSEK.

Gezurretan ari dira krisi ekonomikoak gainditzeko bidean gaudela diotenean. Gure inguruan begiratu besterik ez dago, egunero zenbat jende lanik gabe gelditzen ari diren edo lanik gabe ez gelditzeko mobilizatzen, greban, etab. Beste hainbat epresa berriz EREak auzketzen ari dira Jaurlaritzan, eta, ia guztiak onartzen ari dira, langileen despidetako erreztuz, beren interesen aurka eta enpresarioen espekulazioaren alde egin. Datoren hilabete eta urteetan, krisiak gogor golpatuko gaitu, krisi ekonomikoak larrituz. PNVk eta Ibarretxek, kanpainan, krisia estaltzen ari dira, gezurrak besterik ez dira esaten ari, krisia gainditzeko ez daukate planik. Enpresario espekulatuak eta banketxeak ari dira publiko gehiago ematea besterik ez dute egin. PNV eta PSOE. Eren eskutik ez dago aldaketarik. Eren neoliberaletan kapitalista bul-tzatzen dute. Hainbat zerbitzu pu-

bliko pribatizatzen ari dira: ongizateko zerbitzuak murriztuz, Udaltako beste hainbat zerbitzu bezala. Geroz eta enpresa pribatu gehiago ari dira sortzen diru publiko desbideratuz, kontrol publikoari ihes egin, beren alderdiko lagunen mesedetan izugarritzko soldatak ezartzen dituztelarik. Bestalde, AHT, Pasaia super portua, Gugenhein 2, proiektu faraonikoak ingurumen txikitzaileak direnak, errepideak eta udaletan izugarritzko proiektu urbanistikoak, herritarren interesen aurka inposatzen ari dira. Balia-bide naturalak txikitu eta milaka milioi diru publikoak PNV eta PSEko lagun diren epesariei akjudikatzen dizkiete. Ondoren, Enpresa guzti hauek, ogasunari zergen iruzurra (335 milioi), egiten laguntzen diete eta alderdi politikoa huetako arduradunak espekulazio ekonomikoan inplikatuak dira: Irungo Ogasuna hor dugu, gugenhein, balentziaga, zabalgarbi... eta dimisio-rik ez dago! Eren neoliberaletan eta kapitalistaren beste adibide bat banketxeak dira; iruzur ekonomiko handiena egiten ari dira, herritarren diruarekin mailegu garestiak ezarri, komisiok kobratu eta krisi garaian herritarroei gehien lagundu beharrean kredituak ukatuz. Guzti hau egin dute eta egiten jarraituko dute. Horretarako, PNV eta PSEko arduradun politikoen laguntza eta babesa dute. PNV eta PSOE-ren interesetara handi, eta diru laguntza publiko handiak jasotzen dituzte.

Krisi ekonomiko honetatik ate-

ratzeko, eredu neoliberal eta kapitalista, lurperatu eta beste eredu berri bat ipini behar da abian, non, zerga sistema justuago bat ezarri, aberastasun gehien duenak, gehiago ordainduz, langileon lan baldintza prekarioak apurtu eta baldintza duinak, lan kontratazio eta soldata duinak ezarri, Enpresek urtean izaten dituzten diru irabazi handiak beharrik handien dituzten sektorei laguntza zuzenak bideratuz.

Gezurretan ari dira: PNV eta PSEK, urrengo legegintzaldian ez dute nahi aldaketarik ematea. Nahiz egunero elkarren aurka ari diren aldaketa eman beharraz. Aldaketa bakarrik, Ezker Abertzalearen eskutik etorriko da. Horregatik, aldaketaren motorra dena Ezker Abertzalea legez kanporatu dute. Gatazka egoera honetatik eta Espainiako konstituzio honek ahalbideratzen dizkien pribelgioak eta negozio ekonomiko itzelak babestu nahi dituzte. Ez dute nahi Euskal Herriaren borondatea eta nahia errespetatu. PNV, Ibarretxe buru dela, Espainiako estatu faxistaren enbaxadorerik lehialena da. Lizarrar-Garazi lurperatu nahi du. Euskal Herria 20 urte atzera eraman nahi du, Ajuria-eneako itunaren garaietara itzuliz. Egungo zatiketa irunaraziz, iruzur politikoa berria egin nahi dute PSOEko Zapatero, Rubalcaba eta kopaniarekin.

Bestalde, Non daude EA, EB eta Aralar? Ezker abertzalea legez kanpo utzi eta ez dute ezertxo ere esan, mutu, gor, ezikusiarrena egiten ja-

rraitzen dute. Benetako abertzaleak direla diote! Benetako abertzaleak izan baziren, beste jarrera bat hartuko zuten! Madriletik datozkien pribelgio apurten zain jarraitzen dute, kale-gorrian gozez akabatzen dauden zakurren hantzerak; Badakite, Ezker Abertzalea legez kanporatuz gero, beraiei ere iritsiko baizaie pastelaren zati bat! Ez dira abertzaleak! Diru zaleak dira! Trantsosoak dira! Aho txikiarekin alderdiaren legearen aurka azaltzen dira publikoan baina praktikan ezer ez dute egiten. Teorian desobediencia zibila eta politikoa landu behar diren diskurtsoa lantzen dute baina praktikan zerbaitegin behar denean isilik gelditzen dira.

Euskal Herriak behar duen aldaketa, Ezker Abertzalearen eskutik etorriko da. Ez dago benetako aldaketarik, PNV, PSOE, EA, EB eta Aralar-en eskutik. Beraien helburua orain arte bezala jarraitzea da; Madrili men egin. Martxoaren leian, asko dago jokoan, Bozka errebelde, bozka independentistaz, bozka borrokalaria eta desobediencia zibila borrokatuko duena landu eta bozkatu behar dugu. Martxoaren leian, egungo esparru politikoa gatazkatzea gainditzeko aldaketaren alde bozkatu behar dugu. Benetako abertzale ezkeriar eta aurre-rakoiok, oztopo guztien gainetik, frankismoari aurre egin behar dio. Ezin gara besoak gurutzaturik gelditu! Benetako demokrazia eskuratu behar dugu. Aurrera bolie!!

Tolosaldeko ezker abertzalea.



BURRNBAREN EGUNA



Danborradak
 Haurrak eta helduak ibili ziren danborrak astintzen atzo; aurten estreinakoz helduena ere arratsaldean izan zen, bikien danborradaren ondotik, hain justu.

ESTREINAKO HEBERA CALVO

Danborradaren egunazan zen atzoko; tokianen txanda izan zen lehenengo, 17:00ak aldera, eta helduak atera ziren ondoren, iluntzean. Emakumeen danborrada, hala ere, neperan izan zen. Sanamigoy, Laskorain eta Hirukide ikastetxetako 500 bat haur atera ziren danborrak zintzilik zintzilik eta beraien guzuzoak adi-adi begira zituztela. Santa Maria kalekilerat zirenguztiak eta Solana karririkatik birna igaro zirez; Triangulon bukatu zuten ibilbidea. Danbor jostaliek baketei eragiten ari zireen bitartean, gainera, kaminiera guztiak Kultur Etxeko balkoian zoen guztiak agurtzen. Harek saioa bukatu baino lehen agurtu zen mozorro onenaren saria irabazi zuten hamarrek zeraman-tzan karroza.

Umek eta gero helduen txanda ere irbi zen. 19:00etan atera ziren, indize baino lehenago, izan ere aurtengoan euren iterea aurreratu egin dute. Danborradak urteko urtem hiru gutxiago zituela ikusita, Jai Batzordeak hainbat bilera egin zituen herriko elkarteetako kideekin eta azkenean erdunago aurreratu erabaki zuten. Erabaki ona izan dela dirudi, atzokoan jende andana bildu zen-eta helduen danbor hoteletan jarri.

Hala eta guztiz ere, ohi-tza zaharren mailak izan zuten gauetan burrunbarik. Beraz, hiru Danborrada eta Ingeles Goardialak gauetan atera ziren-eta kalez kale. Haur guztia gutxi balitz herriko Millaño perkusio taldea ere ibili zen giroa alaitzen.

Iragarki laburrak


SALGAI
 • **Ulerdia.** Era guztietako ukendak salgai: fistula edota erredua arazoak, ziruja gabe. Dena naturala. Ditu konpromisorik gabe 618 628 311 telefonora edota idatzi gaitu: r70@hotmail.com helbide elektronikora.
 • **Etxebizitza.** Irizako herriko plaza 300 urteko etxea modu onen salten da. Garajea du eta bertako eran sendotuz eraberritua da. Estreinatzeke dago. E-mail: estreitza-

Xirimiri Txokolategia
 Gero ikusitak
 Tel. 943 683 078 • BERRORI

IURRAMENDI EGOITZA TOLOSA ERROKORRA
 Tolosako Jaurramendi Egoitzak le-aparinketa zerbitzua kontratatatu nahi du.
 Daxki honen oinarriak eta eskaria orri normalizatuak Jaurramendi Egoitzako bulegoetan (Tolosako Iruña etorbideko 6an) daude inbrosatuaren eskura edo Tolosako Udaltzaren web orrian.
 www.tolosakoudala.net
 Eskerrik on! Hurrengo 2009ko martxoaren 4an bukatuko da.

IBAIALDE ANGULAK

Tolosako inauterietarako eskaintza berezia
angula kiloa 380 €
 Ibaialde angularen eskutik bi arrandegi hauetan lortzerik izango da eskaintza:
ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 67 44 06
LOIRA arraindegia • Tel.: 943 65 00 13
 festa on guztio!



Kortineriak Kultur Etxean izan ziren guztia Buztela. e. kutxa



Herriko ikastetxetako 500 bat ume bildu zen danborradan. e. kutxa



Jende asko bildu zen Triangulon helduen danborrada ikusteko. e. kutxa



Koska taldeak danborren eritimoa egin zuten dantzak. e. kutxa

"Jeiki guztiok...
 ...goazen festara danok goizetik"

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net **kutxa**



Gaean berandu itxi eta goizean goiz garbiketa lanetara. Hau da tabernarien patua Inauterietan, baita 19-90 Tabernako langileena ere. A. IMAZ

Inauterien txanponak bi alde ditu gutxienez. Bat, jakina da: jai. Bestea, berriz, ongi ezagutzen dute Tolosako tabernariak. Inoiz galdetu al diozu zure buruari Inauteriak nola bizi dituzte herriko tabernariak?

Hik jai eta guk lan!

ASIER IMAZ

Bost egunetan mozturoririk joateagatik pertsona ez da aldatzen». Filosofo edo antropologo hitz hauek Zarauzitarra Jatetxe-Tabernako nagusiarenak dira. Nola bizi dituzte tabernariak Inauteriak? Zalantzarik gabe, filosofiarekin.

Zarauzitarra, 19-90 eta Atodo tabernetako langileek jai hauetan lan egingo dute. Egun hauetan beraz, «hik jai eta guk lan!».

«Mehategietako langileek ez dute negarrik egiten»

10:00ak eta garbiketa egina dago. Hala eta guztiz ere 15:00etan zabalduko dute Zarauzitarra Taberna-Jatetxea. Nagusia, barra ilunetik nekatu aurpegiarekin dator atara. «Inauterien hasiera ona izan da. Jende jatorra ibili da hemen eta gustu txarreko astakeriarik egin gabe. Badakizu, tabernan lanean dabilenak pazientzia eduki behar du eta ordu asko jasan behar ditu gaiean».

Haseratik erantzunak aurkitzeko garaian filosofiaren itzalera doa. Inauterietan egin beharreko lanaren gogortasunaz galdetuta, bide

beretik jarraitzen du Zarauztarik nagusiak, gogorra izan arren lanbide gogoragoak aurkitzen direla aipatuz: «Itsasora edo basora joateko behar da indarra. Horiek dira lan gogorak. Gaztea izanez gero, lau edo bost egun erraz jasaten dira. Begira mehategietara, bertako langileak bizitza osoan lanean aritzen dira, eta ez dute negarrik egiten».

Isilune baten ostean, jaiaren inguruko alaitasunaren laguntza bilatu behar: «Inauteriak politikak dira bai. Baina bost egunetan mozturoririk joateagatik pertsona ez da aldatzen».

«Inor pasa ez balitz bezala utzi behar duzu eguerdirako»

Zarauztarik irten eta Euskal Herri plazaren ertz batean 19-90 Taberna aurkitzen da. Atea itxirik dagoen arren, barnean bi langile dabilta garbiketa lanetan. Atea kox-kox jo eta...

«Egia esan uste baino jende gehiago ibili da hasiera honetan. Agian azken denboran egindako eguraldi txarrak eragina dauka horretan. Ez dakit, baina jendea gogoz ikusten da. Guk berriz gure

erara disfrutatzen dugu; ez da larunbat gaueko beste lanaldi bat. Egunez ere festa dago, mozturoririk egiten zara, beste harreran mota bat lantzen duzu». Aitziber kide batekin batera garbiketa lanak amaitzen ari da 19-90n. Alkoholarendorioetaz hitz egitean, ulermen aipatzen du behin eta berriz: «Edanak beti sor ditzake gustuko ez diren egoerak. Baina tabernari batek badaki zer den hori, nolabait ulertuarazi edota ulertu egin behar izaten duzu. Lasaitasunez hartu behar da».

Burutzen ari ziren lanaren inguruan berriz, Aitziberrek txanponaren beste alde dela onartzen du: «Garbiketa. Alde itsusia. Orduetgia errespetatuz, 06:00ak aldera jendeari kanpora tiraka hasten zara. Gu berriz 08:00etan etortzen gara dena garbitzeko. Kontutan eduki behar duzu eguerdian zabaltean, jendea haurrek inoiz etorriko dela, zerbait jatera edota zerbait lasai hartzea. Horiei ere errespetu bat zor zaie eta taberna inor pasa ez balitz bezala eduki behar duzu».

Jaiaren inguruan, Aitziberren esanetan tabernarien eguna astearte izaten omen da. «Inauterietan jai egiteko ez dugu denbora handirik edukitzen. Egunez lan egiten baldin baduzu gero atsedean hartu behar duzu, hurrengo egunean lanera joateko berriz. Asteartea azken eguna denez, giroa lasaiegogoten da. Tabernarien eguna izaten da, orduan kalean ikusten dituzun gehienak tabernariak baitira».

Inauterien ostean hainbat taberna itxi edo nagusiz aldatuko direla zabaldu da Tolosan; zurrumurrurik honen inguruan gauzak argi utzi nahi izan ditu Aitziberrek. «Hori ez da horrela. Ahoz aho zabaldu den kontu bat da baina ez da



Zarauzitarra Taberna-Jatetxeko nagusia lantokiaren aurrean. A. IMAZ

horrela. Badakit hainbat tabernari minduta sentitu direla esames hauekin, bere bezeroak nahastu beste gauzarik ez baita lortzen horrelako gauzekin. Errespetuagatik bakarrik baldin bada ere, ez litzateke horrelako komentariorik egin behar; tabernariaren lana lehendik ere nahiko gogorra da».

Atodo Jauregia

Kale Nagusiaren amaieran Atodo Jauregia dago, bertan aurkitzen da hirugarren taberna: Atodo. Osaba ilobak ez daude hitz egiteko gogoz, lanerako baizik. Kasu honetan, tabernariak Inauteriak nola bizi dituzten galdetzea baina hobe da Inauteriak bertan bizitzea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Erronka garrantzitsuaren aurrean

Kabi Alai elkarteak 75 urte beteko ditu aurten; egoitza berria erosi edo zaharrean gelditu, horixe da orain esku artean elkarteko kideek duten hurrengo erronka garrantzitsua.

JOXEMI SAIZAR

Berezitasun gisa, egoitzaren barnean zuhaitz bat duen elkarte bakarra izango da Kabi Alai. Izen horrekin ulertzeko da. Ez dakiguna da, afariren batean, alai-alai jarrita, zuhaitzaren adarretara igo den norbait. Kontua da aurten 75 beteko dituztela eta urte luze horietan makina bat aktibitate burutu ondoren, datozen urteetarako erronka garrantzitsua dute oraintxe esku artean: egoitza berria erosi edo zaharrean gelditu.

Tolosako elkarte beteranoenetakoa da Kabi Alai. Bere lehen pausok beste elkarte batzuren antzekoak dira: gazte koadrila baten iluntzeroko tertulian, Santa Maria kaleko enkoadarnatzailen baten tailerrean; taldea ugaritu zenean leku zabalagoaren bila hasi eta Inoxentxi tabernara pasatu ziren, Zerkau si kalean, leku finkoa lortuz. Kabia alaitzen joan zen eta egoitza pro-

tuta, eta ondorengo urtetan kostatu zen berriro martxan jartzea, giroa ez baitzegoen festarako. Baina desagerpenaren beldurrez, indarrak batu eta aurrera jarraitu zuten Martin Jaimerren lehendakari zapean. Egoera beretsuan zegoen Lagun Onak izeneko gazte koadrila bat elkartu zitzairen aurrerago, kabia ugarituz Eduardo Zaragueta jarri lehendakari.

Kabian ondo pasatzeaz gain, hainbat aktibitate burutu ditu elkarteak urte luze hauetan. Sanjoanetako batel estropadetan parte hartu zuen lehen urteetan, Iurreamendi egoitzaren aldeko musika jaialdiak Gorriti zinemaren 40. hamarkadan eta zezenketak goi mailako toreroekin 50. hamarkadaren bukaeran, Gipuzkoako Txirindulari Itzulia bost etapatan eta hainbat kirol eta kultur ekitaldi zilarrezko ezteietan. Bitxikeria modura, Aste Santuko prozesioan ere parte hartu zuen hamar bat urtez.

Inauterietan eta sanjoanetan, parte-hartze berezia

Baina, kasu gehienak bezala, herriko festetan burutzen dira Tolosaldeko elkarteetako ekitaldi nagusiak, alderdi gastronomikoaz aparte, noski. Inauterietan eta sanjoanetan parte zuzena hartu du Kabi Alaiak. Gerra ondoren txaranga ateratzen lehenak izan ziren, festak ederki bultzatuz. Txaranga protagonismo berezia hartzen du Ostegun Gizenean eta Asteartitan, Incansables txarangaren laguntzarekin. Karroza batzuk ere atera ditu Kabi Alaiak: Roldan-Mario Conde, Wester-eko zezen mekanikoa, untxi antinuklearra, Muni zipotes... Azken urteotan entzute handia lortu du Ostegun Gizeneko udal korporazioarekin. 25 urte beteko ditu aurten, urrezko ezteietan atera baitzuten lehen aldiz. Lehen ideia Dianan ateratzea zen, baina egunez aldatu eta hasierako beldur-oren ondoren, ekitaldia sendotzea lortu dute. Egun bereko pregoia



Tolosako Inauterietan indar berezia izan du betidanik Kabi Alai elkarteak. HITZA

egiten 23 urte daramatzate Kabi Alai kide batzuk. Sanjoanetan berri, azken hamasei bat urteetan eskopetari konpainia ateratzen du elkarteak. Herrian izaten diren hainbat azoka berezitan ere bere laguntza ematen du maiz. Eta santagedatan abesbatza bat osatzen dute Urdiña Txiki eta Gure Kaiola 'bizilagunekin'.

Aurrera begirako erronka handia dute urte berezi honetan. 60

bazkidetara ez dira iristen, egoitza nahiko zaharra eta txikia, berritzeko gastu handietan sartu beharko lukete, berria erostea ere ez da merkea, urte hau ere ez da onena ekonomikoki...

«Martxa badago, martxa oso ona dago. Dirua jarri beharko dela esanda, jendea atzera.» «Ez dakit krisia badagoen, baina beldurra behintzat bai», dio Kike Cealehendakariak. Horregatik ospakizun

handietarako ez daude. Oraingoz martxoaren 14ko urteurren festa eta Velea-Aiz Orratzekin batera egin nahi duten mendi irteera da argitara daitekeen bakarra. Beste guztiak airean dago oraindik, euren zehaztu bezala.

«Edalez ta tripazaiz» osatutako elkartearen munduko penak jai bihurtzen dituzte eta txori guztiak anai dira, bere abestian dioenez. Segi horrela!

Kabi Alai elkartearen sorreraren baimen ofiziala 1934ko martxoaren 16an iritsi zen

Kabi Alaiko itxurazko korporazioak 25. urtez bota du aurten Ostegun Gizeneko txupinazioa

pioaren bila hasi ziren, ordurako sortuta zeuden Gure Txokoa, Gure Kaiola eta Txinparta elkarte-eredua jarraituz. Gorriti plazan, Martija autobus konpainiaren administrazioa izan zen egoitza hartu zuten eta sorreraren baimen ofiziala 1934ko martxoaren 16an iritsi zen. Enrique San Sebastian izan zen lehendabiziko lehendakaria. Hurrengo urteko udazkenean gaur egungo egoitzara joan ziren, Santa Mari kalean, zerrategia izandako behekalde batean. Gerra Zibilak kabia hutsik utzi zuen, mutu-

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Txikitatik danborzaleak

Atzokoan Haur Danborradak hartu zituen Tolosako kaleak. Jendetza bildu zen ibilbidean zehar herriko gaztetxoak danborrak astintzen ikusteko. Tardean, umetxo hau. Nonbait danborrari eragiteko gogoia zuen dagoeneko. Urte batzuk barru ikusiko dugu ziurrenik danborradan... E. EZEIZA



A Agurrak



Urte askoan!

Margari (Amezketan). Txindoki Azpiko usain gozoena duen larrosari, zorianak amona!



Urte askoan!

Oier Oreja (Alegia). Gaur 2 urte. Bi muxu handi bere familiaren partetik.

Noiz ikasiko dute kanpotarrek?

Urteroko kontua da. Larunbata eta baten bat moztorturik. Noiz ikasiko dute kanpotarrek Tolosan ez gairela larunbatean moztortzen? Gaur ere izango da baten bat moztorturik etortzen ez dena. Garaia da bertako ohituretara ohitzeko... R. CALVO



ZERBITZUAK

- Errotulazioa biniloan, zeharargiak
- Formatu handiko inpresio digitalak
- Mota guztietako autoen errotulazioa
- Estanpazioak tela gainean, lanerako arropa
- Oihalak, oianak, eguzki-oihalak
- Erakuslehoak, imandua
- Kartelak, posterrak

Tel.: 943 11 78 87 - 696 60 28 33
San Frantzisko pasealekua, 28 behea • 200400 Tolosa - Gipuzkoa
rotulan@euskalnet.net • www.rotulan.es

MATXINA

Etxekotresna elektrikoek konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34



bozkatu
EAJ
PNV
Jakin eta egin

ba
rre
txe

Berdintasunaren Lehendakaria

Solidaritaterako Lehendakaria. Integrazioa eta tolerantziaren alde egiten duena. Genero berdintasun indizean, Euskadi munduko 5 herrialdeekin batera kokatu duen Lehendakaria; eta, une oro, laguntasuna behar duten pertsonen ondoan jartzen dena. Ibarretxe behar dugu. Orain, inoiz baino gehiago.

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO